

Jabetze Eskola

TOLOSA

Escuela de empoderamiento

2014ko apirila ekaina



Apirila_ Ekaina 2014

Jabetze Eskola
Escuela de Empoderamiento
Tolosa

JABETZE ESKOLA

Zer da jabetzea?

Jabetze terminoa esaten dugunean ikaskuntza eta kontzientziatze prozesu bat adierazi nahi dugu, hain zuzen ere mundu osoko gizarteak egituratzen dituen sexismoak guri, emakumeoi, ezartzen digun diskriminazio eta gutxiegitasun egoera salatzea eta horren kontra borroka egitea ahalbidetzen digun prozesua. Espazio hau emakumeon partaidetza eta jabetzuntza sendotzeko dago pentsatuta, eta gizarte justu, askotariko eta osoago bat lortzeko.

Zer da Jabetze Eskola?

Ez da ohiko prestakuntza leku bat. Hori baino gehiago, erreproduzitu egiten du Mugimendu Feministak -emakumeok bizi dugun errealtateari izena jarri ahal izatearren- sortu zuen jakintzaren produkzio kolektibo eta partekatutako metodologia. Esperientziak, jakintzak eta narrazioak partekatzea da kontua, baina baita gorputzaz disfrutatzea ere, eta diskurtsoak, artea, erredikazioak produzitzea, hau da, munduaz dugun pertzepzioa aldatuko digun eta, aldi berean, mundua aldatzeko tresnak eskainiko dizkigun esperientzia bat bizi izatea.

Tolosaldea Garatzen-eko Migrazio eta Aniztasun Sailarekin elkar lanean.

Apirila_ Ekaina 2014

AUTOESTIMU ETA JABETZE TAILERRA

Dinamizatzailea: **Pepa Bojó**

Egunak: **Apirilaren 28tik Ekainaren 16ra arte. Astelehenak. 8 saio.**

Ordua: 15:00 - 17:00.

Lekua: Kultur Etxea (Trianguloa)

Gaztelania

Tailerraren asmoa da gune bat izatea guk emakumeok hausnartzeko eta elkarrekin ikasteko gure bizipen, gure emozio eta batez ere gure autoestimuari buruz. Ikasiko dugu ezagutzen gure gaitasunak eta balioa, zaintzen mental eta emozionalki, mugak jartzen, hau da, azken finean, ikasiko dugu gure autoestimua modu osasungarrian garatzen, norberaren ahalmena beregain hartuz. Hori guztia norberaren ahalduntze prozesuaren atal bat bezala hartu behar dugu. Beharrezkoa, hain zuzen ere, guk emakumeok garatzeko, geure bizitzaren jabe garela sentitzeko, segurtasuna eta autokonfiantza irabazteko eta berdintasunezko eta tratatu oneko harremanak izatera heltzeko.

EGITARRAUA

BATUKADA FEMINISTA TAILERRA

Dinamizatzailea: **Arantxa Vicedo Rubio eta Ainara Sarasketa.**

Egunak: **Apirilak 28; Maiatzak 5 eta 19; Ekainak 9.**

Ordua: 18:30 - 20:30.

Lekua: Feriala. San Esteban Auzoa.

Elebiduna.

Zergatik egin batukada feminista ikastaro bat? Musikaz eta mugimenduz disfrutatuz emakumeak ikusiak eta entzunak izateko aukera. Musikara gerturatu eta ondo pasatzeaz gain, beste emakume batzuekin batera talde-lanean aritzeko, sormena landu eta autoestimua igotzeko. Emakumeok kalera irten eta espazio publikoak okupatu bitartean jendeari gozarazteko.

AUTODEFENTSA FEMINISTA TAILERRA

Dinamizatzailea: **Emagin Elkartea.**

Egunak: **Maiatzak 10. Larunbata**

Ordua: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 20:00.

Lekua: Kultur Etxea (Trianguloa)

Euskera

Autodefentsa Feminista ez da defentsa pertsonal hutsa. Askoz harago doan filosofia, metodoa eta estrategia da. Autodefentsa Feminista, emakumezko espazioetan lantzen da, emakumeen elkartasunetik sortzen baita, eta elkartasun honetan oinarritzen den metodoa da. Era anitzetako erasoak irudikatuz hauei aurre egiteko erantzun indibidual naiz kolektiboek ariko gara. Gure beldurrak identifikatu eta hauei aurre egiten ere ikasiko dugu, baita ezetz esaten ikasi eta gure amorruari toki egiten ere. Autodefentsa feministaren bitartez norberaren gaitasun eta ezaugarri positiboak jabetza landuko dugu. Horretarako, hainbat dinamika eta jolas erabiliko ditugu guztien artean hausnartu eta alternatibak lantzeko. Taldeak eta norbanako bakoitzak hartuko du garrantzia. Guztiok izango gara adituak, guztiok baitakigu erasoei aurre egiten.

ZORU PELBIKOA ZAINTEKO TAILERRA

Dinamizatzailea: **HAZIA Fisioterapia.**

Egunak: **Ekainak 3, 10 eta 17.**

Ordua: 17:00-19:00.

Lekua: Kultur Etxea (Trianguloa)

Elebiduna.

Pelbis-zorua ahuldu egiten da bizitzan zehar, lan egiten dugunean, pisua kargatzen dugunean, erditzean... Urteak pasatu ahala geroz eta gehiago ahultzen da. Ikasturte honetan sortuko dugu topagune bat emakumeentzat, garatuko ditugu gure gorputza zaintzeko ezagupenak eta landuko dugu, modu osasungarrian, pelbis zonako muskulatura.

NIK ERE BADITUT IKASKETAK. NOLA HOMOLOGATU?

Dinamizatzailea: **Katja Reinberg Castello.**

Bidez bide Elkarteko kidea.

Egunak: **Ekainak 7. Larunbata**

Ordua: 10:30 - 12:30.

Lekua: Abastos (Plaza Berria).

Gaztelania.

Tolosaldea Garatzen-eko Aniztasuna eta Inmigrazio Sailarekin elkarlanean.

Emakume askok jatorrizko herrietan ikasketak burutu zituzten, baina egun ez daude horretan lanean. Bigarren hezkuntza, batxilergo, ikasketak tekniko ego goi mailako homologazio, balioztatze eta onarpen prozesuaren inguruko informazioa, aholkularitza eta orientazioa emango dira.

PLAN BAT DAUKAGU! PARTE HARTZEKO TAILERRAK, TOLOSako III. BERDINTASUN PLANA EGITEKO.

Dinamizatzaileak: **Berdintasuna Arloa eta III. Plana egiteko taldea, Dominique Saillard eta Raquel Lopez.**

1. Tailerra: Nola eragiten du krisiak emakumezkoen eta gizonezkoen bizitzetan?

Maiatzak 30, ostirala, 16:00-20:00

ABASTOS (Plaza Berria). Elebiduna

Ekonomia feministatik planteatutako azterketa-jarraibideak aintzat hartuta, identifikatuko dugu denon artean krisi ekonomikoaren genero inpaktua gure herrian. Leherketa finantzarioaren ondorio larrietatik harago begiratu, hitz egingo dugu egungo sistema sozio-ekonomikoa sustengatzen duten egiturazko desberdintasunez, eta jarduteko proposamen zehatzak egingo ditugu Tolosako Emakume eta Gizonen Berdintasunerako III. Planerako.

2. Tailerra: Berdintasunezko kultura baterantz

Ekainak 6, ostirala, 16:00-20:00

ABASTOS (Plaza Berria). Elebiduna

Tolosako kultur eskaintza eta jarduerak aztertuko ditu, identifikatzeko zein faktorek ikusezin bihurtzen duten emakumeen kultur ekoizpena. Azpimarratuko da, era berean, genero sozializazio mekanismo nagusien azterketa, identifikatzeko ekimen eta proposamen zehatzak, Tolosako Emakume eta Gizonen Berdintasunerako III. Planean sartzeko.

Argibide eta Matrikula:

Izena eman ahal izateko, adierazten den telefono zenbakira hots egin edo e-mailera mezua bidali beharko da, jardueran parte hartzea eskatuz.

943 67 03 83
berdintasuna@tolosakoudala.net

Izena emateko epea:

Jarduera hasi baino bi egun lehenago bukatuko da.

Jarduera eta ikastaro guztiak doakoak dira. Dohainezko haurtzaindegi zerbitzua ere, aurretik eskatuz gero.

APIRILA - EKAINA 2014

Azaleko argazkia: Amaia Gómez